**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

**ZATI KOMUNA**

**2022KO DEIALDIA**

*31/2022 EBAZPENA, otsailaren 22 koa*

25/05/2022 **EUSKAL HIZKUNTZA**

**EPAI MAHAIA ZBKº:** **KALIFIKAZIOA**

**DEITURAK:** ..............................

**IZENA:** ..............................

**NANa/AIZ:** ..............................

# Ingurua

Askotan, eurek kontatutako zerbaitetan oinarritzen da idazten dudana, edo zuzenean eurek ikusarazi didaten sentimendu bat azaltzen dut neure kabuz deskubritu banu bezala, edo ni ez dakit nora joan nadin beste leku batean nik egin behar nukeen lana egiten didate, edo kotxea aparkatzen didate ni denboraz justu nabilenean, edo kritika eraikitzaileak egiten dizkidate, edo arrazoirik ez dudanean ere babestu egiten naute, edo mundua kakatara bidaltzen laguntzen didate, edo akatsak ez direla hainbesterako esaten didate nahiz eta jakin hala direla, edo besarkatu egiten naute isil-isilik, edo kantu baterako falta zaidan esaldi hori lapurtzen diet, edo euren ondoan arnasa hartzea lortzen dut. Gero, erdi brometan bada ere, irabazten dudan diruaren zati bat haiena dela esaten didate. Arrazoirik ez zaie falta, baina zail egiten zait maite dudan jendeari dirutan ordaintzea. Izan ere, hain gauza hotza eta zikina da dirua... saiatzen naiz ordaintzen, dena den.

Gauez sabaiari begira nagoenean konturatzen naiz, ordea, zenbateraino den garrantzitsua ondo inguratuta egotea, zenbateraino den lagungarria bakarrik ez egotea. Orduan, lortu duten guztia eurek bakarrik lortu dutela esaten duen jendearekin gogoratzen naiz, eta ez diet sinisten.

Onintza Enbeita, *Berria*, 2022ko otsailak 8

1.- GAIA (1,5 p)

2.- EGITURA (Eskematikoki) (2,5 p)

3.- TESTU MOTA. Justifikazioa, 10 lerro gehienez. (2,5 p)

4.- BALORAZIO KRITIKOA, 10 lerro gehienez. (2,5 p)

5.- ZUZENTASUNA ETA ORTOGRAFIA (p 1)

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

**ZATI KOMUNA**

**2022KO DEIALDIA**

*31/2022 EBAZPENA, otsailaren 22 koa*

25/05/2022 **EUSKAL HIZKUNTZA**